# agenda

## telebista - irratia

### gaurko.filmeak

Ane Muñoz

## Aktore talde erakargarria J.L. Thompsonen aginduetara

**LOS CAÑONES DE NAVARONE.** Jenero belikoan klasiko bilakatu da luxuzko aktore talde batek aurkeztuko digun zinta hau; Gregory Peck eta David Niven izarrak beste hainbat aktore nabarmenez inguratuta topatuko ditugu. II. Mundu Gerraren garaiko Grezian kokatua, alemaniarren kanoi sarea gainditu eta haustea izango du helburutzat soldadu talde protagonistak. Alistair McLeanek idatziriko eleberriaren egokitzapen zinematografiko zuzen baino zuzenagoa da. Carl Foreman ekoizleak egokitu zuen, eta ondoren J. Lee Thompsonek zuzendu. Askotan ikusi dugu 625 lerroetan; gainera, luze samarra da. Baina gozatzeko modukoa denik ez izan dudarik. ◆

**REBELDES.** Coppolaren filme komertzial arrakastatsu honekin ez dugu tarte atseginik igaroko, baina berdin da; interesgarri samarra da, eta, tira, larunbat lasaia zertxobait animatuko digu. Sei bat aktore gaztetxo ageri dira filme honetan, guapoak eta erakargarriak guztiak. Estatubatuar mutil kozkorrek beren auzokideekin elkartuta alboko auzokoekin dituzten borroka eta gatazkak dira, hain zuzen, biolentziazko une dexente dauzkan luzemetraia honen oinarria. Delinkuentzia, mendekua, ohorea, edozein aitzakia nahikoa izango zaie gure lagunei alboko koadrilaren haserrea probokatzeko. Buruzagien artean, Matt Dillon ezaguna azaltzen da. ◆

**URANUS.** Claude Berri omenduaren lanik ausartena da, ziurrenik, gauean ikus dezakegun zinta frantziar hau. Besteak beste Philippe Noiret eta Gerard Depardieu prestigio handiko aktoreak topatuko ditugu rol nagusietan. II. Mundu Gerraren garaian kokatua dago, eta estreinatu bezain laster baztertu egin bazuten ere, ikus dezazuen eskatuko dizuet nik, interesgarria baita. Gaur jatorrizko bertsioan eskainiko du La2ek. ◆

**RICARDO ERREGEA ETA GURUTZATUAK.** Walter Scotten eleberrian oinarritua dagoen filme epiko eder honetan –askok *El Talisman* izenburuarekin ezagutuko duzue–, beste elementu nabarmengarrien artean, luxuzko aktore taldea da azpimarratzekoa. Abenturazko jeneroan klasikotzat hartua da. Rikardo Lehoi Bihotzaren gora-beherei buruzko pelikula entretenigarria da; diru eta baliabide askorekin egina dela lehen planotik ohartuko zarete. Ikuskizun gozagarria da. ◆

**ORO SANGRIENTO.** *Spaghetti western* honen kalitatea, egia esanda, ez da oso ona, baina oso entretenigarria da, bai eta dibertitzeko aitzakia ederra ere. Lee Van Cleef ezagunak du rol nagusia, Sabata pistoleroa gorpuztuz. Oso lagun bitxiak dauzka honek, eta elkarrekin bizi-ko duten abentura kontatuko digu Frank Kramerrek. ◆

**EL ULTIMO TREN DE GUN HILL.** *Far West*-en etxean bezain lasai ibili ohi zen Sturges adituak Kirk Douglas eta beste aktore ezagun asko deitu zituen Matt Morgan *sheriff*-aren gora-beherak pantailaratzeko. *Western*-ak gustuko dituenarentzat, aprobetxatzeko eskaintza da.

| | | |
|---|---|---|
| 09.00-C+(f) | **JACK L'CLAIR** 1994, John Leslie, 90 m. | ESKASA |
| 11.20-T5 | **ORO SANGRIENTO** 1970, Frank Kramer, 102 m. | BALEKOA |
| 15.30-ETB2 | **LOS CAÑONES DE NAVARONE** 1961, J.L.Thompson, 150 m. | ONA |
| 15.30-TVE1 | **POLTERGEIST** 1965, Tobe Hooper, 71 m. | BALEKOA |
| 15.30-A3 | **LUCAS** 1986, David Seltzer, 95 m. | ESKASA |
| 15.35-T5 | **EL ULTIMO TREN DE GUN HILL** 1959, John Sturges, 95 m. | ONA |
| 17.15-T5 | **JOVENES INTREPIDOS** 1989, William Brindley, 80 m. | ESKASA |
| 17.30-A3 | **EL HOTEL DE LOS FANTASMAS** 1988, Neil Jordan, 92 m. | ESKASA |
| 17.45-TVE1 | **EL ALMA DE LA COPLA** 1991, Martin Cambell, 92 m. | TXARRA |
| 19.20-A3 | **COMO DOS GOTAS DE AGUA** 1963, Luis Cesar Amadori, 92 m. | TXARRA |
| 22.00-C+(e) | **LITTLE TOKYO ATAQUE FRONTAL** 1992, Mark L.Lester, 75 m. | TXARRA |
| 22.15-ETB2 | **LADRONES DE PASIONES** 1984, Douglas Day Stewart, 96 m. | ESKASA |
| 22.20-T5 | **AQUI EL QUE NO CORRE VUELA** 1991, Ramon Fernandez, 83 | TXARRA |
| 23.00-ETB1 | **RICARDO ERREGEA ETA GURUTZATUAK** 1954, David Butler, 114 m. | ONA |
| 00.05-C+(f) | **L'EMPRISE DE LA PASSION** 1994, John Leslie, 90 m. | ESKASA |
| 00.20-T5 | **REBELDES** 1982, Francis F.Coppola, 89 m. | BALEKOA |
| 00.30-ETB2 | **HECHIZO LETAL** 1991, Martin Campbell, 92 m. | ESKASA |
| 00.55-A3-A3 | **CASTA Y PURA** 1981, Salvatore Samperi, 82 m. | TXARRA |
| 02.10-T5 | **SEPARACION MATRIMONIAL** 1973, Angelino Fons, 88 m. | TXARRA |
| 02.15-ETB2 | **EL SOL OSCURO** Dimiano Dimiani, | TXARRA |
| 04.30'-A3 | **UN HOMBRE LLAMADO NOON** 1974, Peter Collison, 90 m. | ESKASA |
| 04.30-T5 | **LA ESPADA DEL DRAGON** | BALEKOA |

TXARRA · ESKASA · BALEKOA · ONA · BIKAINA



**Oharra:** EGUNKARIA ez da azken orduko programazio aldaketen erantzule egiten.

## ETB 1

**08.15** Aurkezpena.

**08.20** Kaleko legea. Telesaila: *Taldea.*

**09.05** Hirukiak. Marrazki bizidunak.

**09.30** Superbat Telebista. Haur eta gazteentzako saioa.
- **Isidoro.** Marrazki bizidunak.
- **Harriketarrak.** Marrazki bizidunak.
- **Kapitain Planet.** Marrazki bizidunak.
- **Space Precint.** Telesaila.

**12.25** Piztien mundu ikusgarria. Dokumentala.

**13.30** Amama sukaldari. Euskal sukaldaritza tradizionala.

**13.35** Herri musika sorta. Euskal musika eta dantzaren inguruko saioa.

**14.00** Gaur egun. Albistegia.

**14.25** Hitzaro. Euskararen inguruko saioa.

**14.55** Space.

**16.25** Sustraia.

**16.55** Euskal Herritik.

**16.55** ETB kirolak. Futbola. Leganes-Eibar.

**20.00** Gaur egun. Albistegia.

**20.10** Futbola: Espanyol-Sevilla. Espainiako Liga.

**22.30** Futbola: Errege Kopa. Partiduen laburpenak.

**23.45** Zine Oro. *Ricardo erregea eta gurutzatuak.* Zuzendaria: David Butler. Aktoreak: Rex Harrison, Virginia Mayo.

**01.35** Boxeo izarrak. Boxeo saioa.

**02.25** Jauzi kuantikoa. Telesaila.

**03.10** Amaiera.

| | ETB 2 | TVE 1 |
|---|---|---|
| 06.00 - 14.00 | 08.45: **Aurkezpena.** 08.55: **Ana.** Magazina. Errepikapena. 10.00: **Raven guerrero americano.** Telesaila: *El engaño.* 10.50: **Toma y daca.** Eztabaida saioa. Errepikapena. 13.55: **Del pais de los vascos.** Dokumentala. Errepikapena. | 06.30: **Dulce ilusión.** 07.15: **El capitán Cook.** 08.00: **Sábado fiesta.** Haurrentzako saioa. 10.15: **Club Disney.** Marrazki bizidunak. 11.45: **El semáforo.** Errepikapena. |
| 14.00 - 19.00 | 14.30: **Teleberri.** Albistegia. 15.00: **Teleberri Kirolak.** Kirol albistegia. 15.30: **Cineaventura.** *Los cañones de Navarone.* Zuzendaria: J.L thompsom. Aktoreak: Gregory Peck, David Niven. 18.15: **Dr. Livingstone supongo.** Abentura saioa. 19.10: **El mundo a tus pies.** | 13.30: **Cartelera.** Zinematokietako eskaintzak. 14.30: **Corazón, corazón.** 15.00: **Telediario-1.** Albistegia. 15.25: **El tiempo.** 15.40: **Sesión de tarde.** *Poltergeist.* Zuzendaria: Tobbe Hooper. Aktoreak: Jobeth William, Graig T. Nelson. 17.45: **Cine de barrio:** *El alma de la copla.* Zuzendaria: Pio Ballesteros. Aktoreak: Enrique Vargas, Adelfa Soto. |
| 19.00 - 00.00 | 19.10: **III Milenio.** Erreportaia: *Escaparse de Tibet.* 20.58: **Teleberri.** Albistegia. 21.35: **Encuentros del III Milenio.** Eztabaida saioa. 22.15: **Cine 2:** *Ladrones de pasiones.* Zuzendaria: Douglas Day Stewart. Aktoreak: Steven Bauer, Barbara Williams. | 19.50: **Mitomania.** 21.00: **Telediario 2.** Albistegia. 21.30: **Informe Semanal.** Erreportaiak. 22.45: **Colombo.** Telesaila. |
| 00.00 - 06.00 | 00.05: **El mundo a tus pies.** Dokumentala. Errepikapena. 01.05: **Especial ciudadanos.** 03.00: **Amaiera.** | 00.30: **Cine de madrugada (I).** *Hechizo letal.* Zuzendaria: Martin Campbell. Aktoreak: Fred Ward, David Warner. 03.30: **Cine de madrugada.** *El sol oscuro.* Zuzendaria: Damiano Damioni. Aktoreak: Michael Parejo Champa, Phyllis Logan. 04.10: **Nido vacío.** 05.40: **Corazón, corazón.** |

### CANAL + (e)

08.10: **ABC World News.** 08.35: **Golf: Birdie.** 09.00: **Programa más o menos multiplicado o dividido.** 10.00: **Zinema: Esa cosa llamada amor.** 11.53: **Dokumentala: Los nuevos chimpances.** 13.00: **Del 40 al 1.** 14.00: **Transworld spot.** 14.55: **Redacción.** 15.00: **National Geographic en canal +: Artico extremo.** 16.00: **Futbola: Ingalaterrako liga.** 17.55: **Rugbya.** 19.30: **Programa más o menos multiplicado o dividido.** 20.00: **Avance redacción.** 20.05: **Primer plano.** 20.30: **Mucho más.** 21.00: **Sigue soñando. Telesaila.** 21.30: **Redacción.** 22.00: **Estreno Canal +: Little Tokio ataque frontal.** 23.18: **Zinema: Barry Lyndon.** 02.18: **Zinema: Días contados.** 03.51: **Zinema: Mina Tannenbaum.** 05.56: **Zinema: Nada más que la verdad.** 07.27: **Dokumentala: Pesadillas de la naturaleza. Aguas asesinas.**

### CANAL + (f)

07.00: **CBS Evening News.** 07.20: **Le journal de l'emploi.** 07.30: **Est-ce bien de l'amour?** 09.00: **Zinema: Jack L'éclair.** 10.35: **Zinema: Le colonel Chabert.** 12.25: **Flash info.** 12.30: **L'hebdo de Michel Field.** 14.00: **Basket-ball.** 16.05: **L'inspecteur Beck.** 17.30: **Insektors.** 17.45: **Partir avec national geographic.** 18.40: **Les Simpson.** 19.10: **C net.** 19.20: **L'oeil du cyclone.** 20.20: **Pas si vite!** 20.30: **La nuit des 'Cesar'.** 23.00: **Jour de foot.** 00.00: Le journal du Hard. 00.05: **Zinema: L'emprise de la passion.** 01.35: **Zinema: A la recherche de bobby Fischer.** 03.20: **Zinema: Va mourire.** 04.50: **Zinema: Un monde parfait.**